(1) Sozietatearen izaera, jarduerak

Arabako Bideak, S.A. (aurrerantzean, Sozietatea) sozietate anonimo eratu zen 2003ko abenduaren 15ean, denboraldi mugagaberako.

Arabako Bideak, SA Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 1044/2003 Erabakiari jarraiki sortutako sozietate publikoa da. Sozietatearen kapitala oso-osorik Foru Aldundiarena da eta, beraz, kide bakarreko sozietatea da.

Arabako Bideak, S.A. foru sozietate publikoa da, jarduera ekonomikoak eta foru zerbitzu deszentralizatuak kudeatzeari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauan aurreikusitakoaren babesean.

Arabako Bideak, SAren xedea hauxe da: Vitoria-Gasteiztik Eibarrerainoko AP-1 autobidea egin, artatu, mantendu eta ustiatzea, Arabako Lurralde Historikoa zeharkatzen duen tartean.

Sozietatearen helburu sozialaren barruan, aurreko paragrafoan adierazitako jarduerez gainera, honako hauek ere sartzen direla iritziko da:

a) Aurrekoez bestelakoak izanik haietan eragina duten azpiegitura obrak, baldin eta beren eragin eremuaren barruan egiten badira edo trafikoa antolatzeko beharrezkoak badira, Arabako Foru Aldundiak Sozietatea behartzen duela obren burutzapen proiektua egitera edo soilik obrak burutzera.

b) Emakida bidez esleituta dituen autobideetako zerbitzuguneen, errepideen, tunelen eta zubien ustiapena helburu duten jarduerak eta aurrekoen osagarriak.

c) Jarduera hauek: zerbitzuguneak, garraiogune integratuak eta aparkalekuak, baldin eta horiek guztiak azpiegitura haien eragin eremuaren barruan badaude, aplikatzeko diren legezko xedapenen arabera.

d) Garraio eta komunikazio azpiegiturekin loturik dauden jarduerak, aplikatzeko diren xedapenen arabera.

Azaldutako jarduerak sozietateak, osorik nahiz zati batean, zeharka egin ahal izango ditu, helburu berdina edo antzekoa daukaten beste sozietate batzuetako partaidetza dela medio.

2003ko maiatzaren 8an, lankidetza hitzarmena sinatu zuten Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; horren bidez, besteak beste, AP-1 autobidea 2007. urterako amaituta egon zedin beharrezko baliabideak jarri ziren eta autobide horri aplika dakizkiokeen tarifak edo bidesariak finkatu ziren.

2004ko urriaren 26an, kudeaketa akordioa sinatu zuten Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Bideak, S.A. sozietateak. Horren bidez, Arabako Bideak, S.A. sozietateari esleitu zitzaizkion autobidea zuzeneko kudeaketako erregimenean egin, kontserbatu, mantendu, ustiatu eta finantzatzeko lanak. Akordio horrek, besteak beste, Arabako Bideak, SA sozietateak autobidearekiko dituen eskubideak eta betebeharrak eta Arabako Foru Aldundiaren eskumenak, eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu.

Autobidearen finantzaketari dagokionez, Arabako Biltzar Nagusiek otsailaren 9ko 5/2004 Foru Araua onetsi zuten; horren bidez, Arabako Bideak, S.A. sozietateari baimena eman zitzaion autobidea egiteko behar adina finantzaketa kontratu sinatzeko. Finantzaketaren funtsezko baldintzetako bat da Arabako Foru Aldundia ez zorpetzea, kontu nazionaletarako eta eskualdekoetarako Europako sistemak (SEC 95) eta aurrekontuen egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legeak dituzten ondorioetarako.

Era berean, 2003ko otsailaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek akordioa sinatu zuten, Inbertsio Publikoaren aldeko Finantza Laguntzarako Esparru Plana garatu eta aplikatzeko. Akordio hori aldatu egin zen 2004ko urriaren 15ean, jatorrizko akordioan proiektu ezberdinetarako hasieran aurreikusitako diru zuzkidurak eta horien urte anitzeko banaketak berrikusteko.

Berrikuspen horretan, Eusko Jaurlaritzak autobidea eraikitzeko emandako diru kopuru hauek jasotzen ziren:

| 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|
| 6.010.000 | 12.020.000 | 11.510.000 | 6.010.000 | 35.550.000 |

Inbertsio beharren arabera, finantza erakundeekin epe luzerako kredituak harpidetu dira. Kreditu horiek, funtsean, honakoen bidez antolatzen dira: a) tartez tarte emango den epe luzerako kreditu kontratua; eta, b) bonuen bidez emango den eraikitzeko kreditu kontratua. Horrez gain, BEZaren kreditu kontratua ere harpidetu da, autobidea eraiki bitartean jasandako BEZa finantzatzeko.

Finantzaketa proiektuak finantzatzeko ereduan oinarritzen da. Eredu horretan, cash-flow librearen % 100 banku zorra kitatzeko erabiltzen da.

AP-1 autobidea eraikitzeko proiektua, Arabako lurraldean, hiru tartetan banatu zen:

1. zatia: Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea egiteko proiektua. Tartea: Luko-Gipuzkoako probintzia muga.

Proiektu hau 2004ko apirilaren 27an esleitu zen, 75.637.555 eurotan.

Obra honen zuinketa akta 2004ko maiatzaren 10ean egin zen eta, horrekin batera, autobidearen Arabako tartea egiteko lanei ekin zitzaien.

2. zatia: Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea egiteko proiektua. Tartea: Etxabarri-Ibiña-Luko.

Tarte hau egiteko lehiaketa 30.540.972 eurotan esleitu zen, 2005eko abenduaren 30ean.

Obra honen zuinketa akta 2006ko apirilaren 19an egin zen.

Arlabango tunela: Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea egiteko proiektua. Arlaban – Eskoriatza Iparraldea tartea.

Arlabango tunela Arabako eta Gipuzkoako lurretatik doa. Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak itundu dute tunela Arabako tartean eraikitzea Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo duela, BIDEGI, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, SA Gipuzkoako foru sozietate publikoaren bitartez.

Horrela, erabakita dago Sozietateak Arabako lurraldean egin beharreko obraren kostua eta instalazio erkideen kostuaren proportziozko zatia ordainduko dituela; berdin du horiek non kokatzen diren. Halaber, bere lurraldean tunelaren eraikuntzarekin loturik dauden lurrak ipini beharko ditu.

Autobidea egiterakoan izandako atzerapen eta kostu osagarrien ondorioz, bi mailegu sindikatu osagarri eskatu dira 2008ko eta 2009ko ekitaldietan. Horien zenbatekoa 12.000.000 eta 24.000.000 euro izan da hurrenez hurren.

Sozietateak 2009ko maiatzaren 22an hasi zuen AP-1 Autobidearen ustiapena.

(2) Aurkezpen oinarriak

(a) Irudi zehatza

Urteko kontu laburtuak Arabako Bideak, S.A. sozietatearen kontabilitate erregistroetatik abiatuta egin dira. Urteko kontu laburtuak merkataritzaren arloan indarrean dagoen legeriari eta Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako arauei jarraiki prestatu dira, 2009ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren irudi zehatza erakusteko, bai eta eragiketen emaitzena eta egun horretan amaitutako urteko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketena ere.

Era berean, Arabako Bideak, S.A. enpresaren eta Ordainpeko Autobideen Sozietate Kontzesionarioen gizarte helburuaren antzekotasuna kontuan hartuta, Kontabilitate Plan Orokorraren egokitzapen arauetan sartutako balorazio eta sailkapen arauak aplikatu zaizkie autobide, tunel, zubi eta ordainpeko bestelako sozietate kontzesionarioei; hori 1998ko abenduaren 10eko Ministro Aginduak onetsi zuen, 1514/2007 Errege Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorraren aurkakoak ez diren alderdi guztietan.

Sozietateko administratzaileek erabaki dute 2010eko maiatzaren 21ean adierazi ziren 2009ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak Akziodun Bakarrak onartuko dituela, inolako aldaketarik gabe.

(b) Informazioa erkatzea.

Egoera balantze laburtuko partidekin, galera eta irabazien kontu laburtuaren, ondare garbian izandako aldaketen egoera laburtuaren eta memoriaren erkatze eraginetarako, 2009ko ekitaldiko kopuruez gain aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dituzte urteko kontu laburtuek. Horiek Akziodun Bakarrak 2009ko ekainaren 2an onartutako 2008ko ekitaldiko urteko kontu laburtuen parte ziren.

(c) Moneta funtzionala eta aurkezpen moneta

Urteko kontu laburtuak eurotan aurkezten dira, hori baita Sozietatearen moneta funtzionala eta aurkezpen moneta.

(d) Kontabilitateko politiken aplikazioan nabarmenak diren zalantza eta usteen balorazio eta balioespenaren alderdi kritikoak

Urteko kontu laburtuak prestatzean, kontabilitateko balioespen nabarmenak aplikatu eta usteak, balioespenak eta hipotesiak egin behar dira Sozietatearen kontabilitateko politiken aplikazioaren prozesuan. Zentzu honetan, jarraian uste edo konplexutasun maila altuagoa eragin duten alderdien edo hipotesiak eta balioespenak urteko kontu laburtuak prestatzeko adierazgarriak diren alderdien xehetasuna laburtu da:

(i) *Kontabilitateko balioespen aipagarriak eta hipotesiak*

Sozietateak 2004ko ekitaldian interes tasen eta inflazioen estaldurak kontratatu zituen, autobidearen ustiapen epean fluktuazioengatiko arriskuak estaltzeko, bai interes tasen gainean, bai inflazioaren gainean. Zentzu horretan, Sozietateko administratzaileek ezin izan dute estalduren kontabilitatea aplikatu (ikusi 10. oharra)

*(ii) Balioespen aldaketak*

Sozietateko administratzaileek egindako balioespenak 2009ko abenduaren 31n zegoen informaziorik onenaren arabera kalkulatu badira ere, baliteke etorkizunean gerta daitezkeen gertakariek hurrengo ekitaldietan aldatu beharra eragitea. Hurrengo ekitaldietan egin beharko liratekeen egokitzapenek eragindako aldaketen ondorioa urteko kontu laburtuetan, modu prospektiboan erregistratuko litzateke.

(3) Emaitzak aplikatzea

Sozietatearen 2008ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko emaitzen aplikazioa, 2009ko ekainaren 2an onartu zuena Akziodun Bakarrak, eta Sozietateak Akziodun Bakarrari aurkeztu beharreko 2009ko emaitzaren aplikazio proposamena honelakoa izango da:

| | Eurotan 2009 | 2008 |
|---|---|---|
| Banaketa oinarriak | | |
| Ekitaldiko galerak | 2.996.945 | 2.760.836 |
| Aplikazioa | | |
| Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak | 2.996.945 | 2.760.836 |

2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, erreserba banaezinen zenbatekoa 155.299 eurokoa izan zen eta, oso-osorik, legezko erreserbari dagokio.

(4) Erregistro eta balorazio arauak

(a) Finantza gastuen kapitalizazioa

Sozietateak ibilgetu materialaren kostuan, zehazki erabilera edo ustiapen baldintza egokietan urtebete baino gehiagoko denbora tartea behar duen autobide, tunel, zubi eta ordainpeko bestelako bideetako inbertsio kontuan, honako gastuak sartu ditu: finantziazio espezifiko edo generikoari lotutako finantza gastuak, eskuratze, eraikitze edo ekoizpenari zuzenean egotz dakizkiekeenak, eta, bidezkoa bada, zorpetzeari lotutako interesen estaldura eragiketen saldo positiboa kenduta. Hori guztia autobidea funtzionatzen hasi bitartekoa litzateke.

Interesen kapitalizazioa Galera eta irabazien kontu laburtuko “Finantza gastuen aktiboan sartzea” partidaren bitartez egiten da.

(b) Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezina aplikazio informatikoei dagokie oso-osorik, eta horiek erosi ziren prezioan sartu dira kontabilitatean. Ibilgetu ukiezina egoera balantze laburtuan aurkeztu da amortizazio metatuen zenbatekoan duen kostu murriztuaren balioari jarraiki. Amortizazio horiek linealki kalkulatu izan dira bizitza erabilgarri osoan zehar, eta bizitza erabilgarri hori bost urtekotzat jo da.

Aplikazio informatikoen mantentze gastuak gastuetara eramaten dira egiten direnean.

(c) Ibilgetu materiala

*(i) Hasierako onarpena*

Ibilgetu materialean sartutako aktiboak eskuratutako edo ekoiztutako prezioaren arabera kontabilizatu dira. Ibilgetu materiala egoera balantze laburtuan aurkeztu da, amortizazioen eta narriaduraren ondoriozko balorazio zuzenketen zenbatekoan kostu murriztuaren balioaren arabera.

Autobideak, tunelak, zubiak eta ordainpeko bestelako bideak eraikitzeko inbertsioa, besteak beste, honakoek osatzen dute: azterlan teknikoak eta ekonomikoak, proiektuak, desjabetzeak, kalte ordainak eta zerbitzuen eta bide zorren birjartzea, obra eta instalazioen eraikuntza, obren zuzendaritza eta administrazio gastuak, autobidea eraikitzeko denboraldian sortutako finantza gastuak eta ordainpeko bideak funtzionatzen hasi arteko gastu orokorrak eta administrazio gastuak.

*(ii) Amortizazioak*

Ibilgetu materialeko elementuen amortizazioa egiteko, bizitza erabilgarrian modu sistematikoan amortiza daitekeen zenbatekoa banatzen da. Horretarako, amortiza daitekeen zenbatekotzat hartzen da eskuratze kostua, hondar balioa kontuan hartu gabe. Sozietateak amortizazio gastua modu independentean zehazten du osagai bakoitzarentzat, elementuaren kostu osoaren aldean kostu adierazgarria duena eta elementuaren gainerako bizitza erabilgarriaren bestelakoa duena.

Ibilgetu materialaren elementuen amortizazioa jarraian aipatutako irizpideak aplikatuz zehazten da:

| | Amortizazio metodoa | Zenbatetsitako bizitza erabilgarria (urteak) |
|---|---|---|
| Inbertsioak autobideetan, tuneletan, zubietan eta bidesaria duten beste bide batzuetan | Lineala | 14-25 |
| Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak | Lineala | 5 |
| Bestelako ibilgetu materiala | Lineala | 4 |

Autobideetan, tuneletan eta ordainpeko beste bide batzuetan egindako inbertsioen elementu direnak, haien bizitza erabilgarria emakidaren aldia eratzen duen 35 urteko aldia baino gehiagokoa bada, emakida aldi horretarako aurreikusitako trafikoak gorabehera amortizatzen dira.

Sozietateak, ekitaldi bakoitza ixtean, hondar balioa berrikusten du, bai eta bizitza erabilgarria eta ibilgetu materialaren amortizazio metodoa ere. Hasieran ezarritako irizpideen aldaketak balioespen aldaketa gisa jotzen dira.

*(iii)* *Ondoko kostuak*

Aktiboaren hasierako onarpenaren ondoren, bizitza erabilgarriaren ahalmena, produktibitatea edo luzapenaren handitzea dakarten kostuak baino ez dira kapitalizatzen, eta baja ematen zaio ordeztutako elementuen kontabilitate balioari. Zentzu honetan, ibilgetu materialaren eguneroko mantentze lanek eragindako gastuen emaitzak erregistratzen dira, gertatu ahala.

(d) Amortizazioari edo balio galerari lotutako aktibo ez finantzarioen balioaren narriadura

Sozietateak amortizazioari edo balio galerari lotutako aktibo ez finantzarioen balioaren narriadura agerian utz dezaketen adierazgarriak daudela ebaluatzeko irizpideari eusten dio, aipatutako aktiboen kontabilitate balioak berreskura daitekeen balioa gainditzen duen egiaztatzeko; balio hori arrazoizko balioaren (salmenta kostuak aparte) eta erabilera balioaren artean handiena da.

e) Alokairuak

Sozietateak bere alde lagata du aktibo jakin batzuk erabiltzeko eskubidea, alokairu kontratuen pean eginez gero.

Alokairu operatiboetatik etorritako kuotak, jasotako pizgarrien kuota garbiak, gastu gisa onartzen dira linealki alokairu epeak iraun bitartean.

f) Finantza baliabideak

*(i) Finantza tresnen sailkapena eta bereizketa*

Finantza tresnak hasieran finantza aktibotzat, finantza pasibotzat edo ondare tresnatzat onartzen diren unean sailkatzen dira, kontratuaren akordioaren funts ekonomikoaren eta finantza aktibo, finantza pasibo edo ondare tresnaren definizioen arabera.

Sozietateak finantza tresnak kategorietan sailkatzen ditu, Zuzendaritzak hasieran onartzean izaniko ezaugarrien eta asmoen arabera.

*(ii) Konpentsazio printzipioa*

Finantza aktiboa eta finantza pasiboa konpentsatuko dira, baldin eta Sozietateak onartutako zenbatekoak konpentsatzeko eskubidea badu eta kopuru garbia likidatzeko asmoa badu edo, aldi berean, aktiboa egiteko eta pasiboa ezeztatzeko asmoa badu.

*(iii) Negoziatzeko mantendu diren finantza aktibo eta pasiboak*

Negoziatzeko mantendutako finantza aktibo eta pasiboak dira hasierako onarpenetik negoziatzeko mantendu direnak eta horrela sailkatzen direnak.

Finantza aktibo edo pasiboa negoziatzeko mantendutakotzat joko da honakoak betetzen badira:

- Batik bat saltzeko edo epe laburrera berriro ere lortzeko sortu, eskuratu edo ematen bada.
- Batera kudeatutako eta identifikatutako finantza tresnen zorroan badago, eta horretarako epe laburrerako onurak eskuratu direlako azken patroiaren froga badago, edo
- Eratorria bada, estaldura tresnatzat hartutako eta eraginkorra izateko baldintzak betetzen dituen eratorria salbu (finantza bermearen kontratua izan ezean)

Negoziatzeko mantendutako finantza aktibo eta pasiboak hasieran arrazoizko balioan onartzen dira. Erosketari edo jaulkipenari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuak galera eta irabazien kontuan gastu gisa onartzen dira, gertatu ahala.

Hasierako onarpenaren ondoren, arrazoizko balioan onartzen dira, emaitzetan aldaketak erregistratuz. Arrazoizko balioa ez da salmenta edo bestelako bitartekoagatik gerta litezkeen transakzio kostuengatik gutxitzen. Sortutako interes eta dibidenduak, izaera dela eta, partidetan sartzen dira.

*(iv)* *Kobratu beharreko mailegu eta partidak*

Kobratu beharreko mailegu eta partidak merkataritza eragiketen ondoriozko kredituek eta merkataritzakoak ez diren eragiketen kredituek osatzen dituzte (kobrantza finko edo zehatzekin), merkatu aktiboan kotizatzen ez dutenek, finantza aktiboen beste kategoria batzuetan sailkatutakoak ez direnek. Aktibo horiek hasieran arrazoizko balioarengatik onartzen dira, gertatutako transakzio kostuak barne; gero, amortizatutako kostuan baloratzen dira, interes tasa efektiboaren metodoaz.

Hala ere, honako baldintzak betetzen dituzten finantza aktiboak balio nominalaren arabera baloratzen dira: interes tasa ezarrita ez badute, horien zenbatekoa amaitu egiten bada edo epe laburrean jasotzea espero bada eta eguneratzeagatiko ondorioa adierazgarria ez bada.

*(v)* *Interesak*

Interesak interes efektiboaren tasaren metodoarekin aitortzen dira.

*(vi)* *Bajak finantza aktiboetan*

Finantza aktiboei baja ematen zaie kontabilitatean haiekin zerikusia duten efektibo fluxuak eskuratzeko eskubideak iraungi egin direnean edo transferitu egin direnean eta Sozietateak adierazgarritasunez intsuldatu dituenean bere titulartasunpetik eratorritako arriskuak eta mozkinak.

Finantza aktibo bati erabateko baja emateak esan nahi du emaitzak onartu egiten direla kontabilitatean duen balioaren eta eskuratutako kontraprestazioaren (transakzioaren gastuen kontraprestazio garbia) arteko aldearen bidetik. Bertan sartuko lirateke ere eskuratutako aktiboak edo gain hartutako pasiboak eta baita ondare garbian aitortutako sarreren eta gastuen edozein galera edo irabazi berandutu ere.

*(vii)* *Finantza aktiboen balioaren narriadura*

Finantza aktibo bat edo finantza aktiboen taldea narriatuta dago eta narriaduraren ondoriozko galera gertatu da, baldin eta aktiboaren hasierako onarpenaren ondoren gertaera baten edo gehiagoren ondorioz narriaduraren froga objektiborik badago, eta galeraren oinarri izan den gertaera hori edo horiek aktibotik edo finantza aktiboen taldetik balioetsitako etorkizuneko eskudiru fluxuen gainean eraginik badute.

Sozietateak kobratu beharreko mailegu eta partiden eta zor tresnen narriaduraren ondoriozko balorazio zuzenketa egokiak erregistratzeko irizpideari eusten dio, balioetsitako etorkizuneko eskudiru fluxuetan, zordunaren kaudimenik ezagatik, murriztapena edo atzerapena gertatu denean.

*Kostu amortizatuan baloratutako finantza aktiboen balioaren narriadura*

Kostu amortizatuan kontabilizatutako finantza aktiboen kasuan, balioaren narriaduraren ondoriozko galeraren zenbatekoa honakoa da: finantza aktiboaren kontabilitate balioaren eta balioetsitako etorkizuneko eskudiru fluxuen egungo balioaren arteko aldea, sortu ez diren etorkizuneko kreditu galerak alde batera utzita, aktiboaren interes tasa efektibo originalari deskontatuta. Interes tasa aldakorreko finantza aktiboen kasuan, interes tasa efektiboa erabiltzen da, eta balorazio datari dagokio, kontratuaren baldintzen arabera.

Narriaduraren ondoriozko galera emaitzen kargura onartzen da, eta itzulgarria da ondoko ekitaldietan, baldin eta murriztapena, modu objektiboan, onarpenaren ondoko gertaera bati lotu ahal bazaio. Hala eta guztiz ere, galera lehengoratzeko muga honakoa da: aktiboek izandako kostu amortizatua, balioaren narriaduraren ondoriozko galera erregistratu ez balitz.

*(viii) Finantza pasiboak*

Finantza pasiboak, merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk barne, negoziatzeko mantendutakotzat hartzen ez direnak edo galera eta irabazien kontuan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioa duten finantza pasibotzat hartzen ez direnak, onartu egiten dira hasiera batean arrazoizko beren balioan. Salbuespena horien jaulkipenari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuak dira, hala badagokio. Hasierako onarpenaren ondoren, kategoria honetan sailkatutako pasiboak kostu amortizatuan baloratzen dira, interes tasa efektiboaren metodoaz.

Hala ere, honako baldintzak betetzen dituzten finantza pasiboak balio nominalaren arabera baloratzen dira: interes tasa ezarrita ez badute, horien zenbatekoa amaitu egiten bada edo epe laburrean jasotzea espero bada eta eguneratzeagatiko ondorioa adierazgarria ez bada.

*(ix) Finantza pasiboen baja eta aldaketak*

Sozietateak finantza pasiboa edo horren zati bat bajan ematen du, pasiboan jasotako obligazioa bete badu, edo pasiboan jasotako funtsezko erantzukizunetik legez dispentsatuta badago, dela prozesu judizialari jarraiki, dela hartzekodunaren bidez.

Sozietateak finantza pasiboaren edo baliogabetutako edo hirugarren bati lagatako horren zati baten kontabilitate balioaren eta ordaindutako kontraprestazioaren arteko aldea onartzen du, efektiboaren edo pasiboaren bestelako lagatako edozein aktibo barne, galera eta irabazien kontuaren kargura.

*(x)* *Fidantzak*

Emandako fidantzak finantza aktiboen kasuan azaldutako irizpideen arabera baloratzen dira. Emandako zenbatekoaren eta arrazoizko balioaren arteko aldea ordainketa aurreratutzat onartzen da, galera eta irabazien kontuan ezartzen dena, zerbitzua ematen den aldian.

(g) Tunelak eta autobideak finantzatzeagatik geroratutako finantza gastuak

1998ko abenduaren 10eko Ministerioko Aginduaren bitartez onartutako Kontabilitate Plan Orokorraren egokitzapen arauetan autobideak, tunelak, zubiak eta ordainpeko bestelako bideak finantzatzeko jasotako finantza gastu geroratuei buruzko irizpideak mantentzen dituen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuko bosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraiki, erantsitako egoera balantze laburtuaren idatz zati honek jaso egiten du ez dela egozgarria inbertsioaren balio handiagoko bezala autobidearen finantzaziotik eratorritako finantza karga, ohar honetako (a) idatz zatian aipatutakoari jarraiki. Finantza gastuak emaitzei egozten zaizkie, Finantza eta Ekonomi Planean aurreikusitako diru sarrerekiko proportzionalki. Alde hori aktibatu egiten da, ulertu egiten delako plan horretan etorkizunerako aurreikusitako diru sarrerek aukera emango dutela gastu horiek berreskuratzeko. Jada aipatu diren egokitzapen neurriei jarraiki, eta aurreikusitako sarrerekin uztartuta, ekitaldi bakoitzerako finkatu egiten da bidesariko sarrerak zeintzuk izango diren kopuru osoaren aldean. Proportzio hori emakidaren aldian zehar aurreikusitako finantza gastu osoei aplikatzen zaie, ekitaldi ekonomiko bakoitzean, ekitaldiko finantza gastu modura, egotzi beharreko horien zenbatekoa finkatze aldera.

Ekitaldiko benetako diru sarrerek aurreikusitakoak gainditzen badituzte, aurreko proportzioa bidesariko benetako sarreraren eta harentzat aurreikusitako sarrera guztien artean kalkulatuko da.

(h) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak

Eskudiruak eta bestelako aktibo likido baliokideek barne hartzen dituzte eskudirua (kutxan) eta ageriko banku gordailuak, kreditu erakundeetan. Halaber, kontzeptu horren barnean likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk ere sartzen dira, baldin eta eskudiruaren zenbatekoan erraz bihurtu ahal badira eta balioaren aldaketen arrisku baliogabeari loturik badaude. Horretarako, eskuratzen den egunetik aurrera hiru hilabete baino gutxiagoko epemuga duten inbertsioak sartzen dira.

(i) Hornidurak

Hornidurak onartzen dira Sozietateak obligazioren bat duenean, dela legezkoa, kontratukoa, inplizitua edo ezkutukoa, dela aurreko gertaera baten ondoriozkoa. Baliteke obligazio hori baliogabetzeko etorkizuneko ekonomia onurak ekarriko dituzten baliabideen irteera bat egotea, eta, horrela, obligazioaren zenbatekoaren balioespen fidagarria egin liteke.

Hornidurak emaitzen aurka itzultzen dira, baldin eta obligazio hori baliogabetzeko baliabideen irteerarik egon ezin bada.

(j) Zerbitzuak emateagatiko sarrerak

Zerbitzuak ematetik eratorritako sarrerak aitortu egiten dira zerbitzuek eurek irudikatutako zerbitzuen emakidaren benetako korrontea gertatzen denean, haietatik eratorritako moneta edo finantza korrontea noiz jazotzen den alde batera utzita.

(k) Mozkinen gaineko zerga

Arabako Biltzar Nagusiek, 2004ko maiatzaren 10eko Osoko Bilkuran, besteak beste Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua aldatzen duen 7/2004 Foru Araua onetsi zuten. Aldaketa hori dela eta, Arabako Bideak, S.A. salbuetsita geratzen da Sozietateen gaineko Zergan. Salbuespen horrek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako izango ditu ondorioak.

(l) Estaldura eragiketen kontabilitatea

Sozietateak interes tasen eta inflazioaren gaineko zenbait estaldura eragiketa ditu kontratatuta, finantza erakundeekin hitzartutako interes tasen aldaketek ekar dezaketen arriskua murrizteko, bai eta autobidearen ustiapen epean aurreikusitako inflazioan fluktuazioengatiko arriskuak estaltzeko ere.

Ekitaldia ixtean, merkatuko balioa ezartzeko finantza tresna hauen balorazioa egiten da.

Estalduren kontabilitate irizpideak betetzen ez dituzten eratorritako finantza tresnak negoziatzeko mantendutako finantza aktibo edo pasibo gisa sailkatu eta baloratzen dira, eta aldaketak arrazoizko balioan erregistratzen dira, galera eta irabazien kontuaren abonu edo kargura.

(m) Ingurumena

Sozietateak honako helburu nagusiak dituen eragiketak egiten ditu: bere jardueren ondorioek ingurumenean eragiten dituzten kalteak prebenitu, gutxitu edo konpondu.

Ingurumen jardueren ondoriozko gastuak Bestelako ustiapen gastu gisa onartzen dira, gertatzen diren ekitaldian. Hala ere, Sozietateak ingurumen hornidurak aitortzen ditu eta, hala badagokio, itzulketa eskubideak, hornidurak (i) idatz zatian garatutako irizpide orokorren aplikazioaren bidez.

Bere jardueran denbora luzez erabiltzeko lortutako ibilgetu materialaren elementuak, helburu nagusitzat ingurumen eragina txikiagotzea eta ingurumena babestu eta hobetzea dutenak (bai eta Sozietatearen etorkizuneko eragiketen ondoriozko kutsadura gutxitu edo ezabatzea ere), aktibotzat onartzen dira, honako hauen aplikazioaren bidez: balorazio, aurkezpen eta banakapen irizpideak, Ibilgetu materiala (c) idatz zatian aipatutakoetan dautzanak.

(n) Transakzioak, lotura duten alderdiekin

Taldeko enpresen arteko transakzioak emandako edo jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren bidez aitortzen dira. Balio horren eta itundutako zenbatekoaren arteko aldea azpiko ekonomia oinarriaren arabera erregistratzen da.

(5) Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezinean sartutako kontuetako eraketa eta mugimendua honakoa da:

| | Eurotan 2008 | Altak | 2009 |
|---|---|---|---|
| Kostua | | | |
| Informatika aplikazioak | - | 3.962 | 3.962 |
| Amortizazio metatua | | | |
| Informatika aplikazioak | - | - | - |
| | - | 3.962 | 3.962 |

(6) Ibilgetu materiala

2009ko eta 2008ko ekitaldietan ibilgetu materialean sartutako kontuetako eraketa eta mugimendua honakoa da:

| Eurotan | 2007 | Altak | 2008 | Altak | Intsuldaketak | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kostua | | | | | | |
| Inbertsioak autobideetan, tuneletan, zubietan eta bidesaria duten beste bide batzuetan. | - | - | - | - | 149.172.151 | 149.172.151 |
| Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak | 5.699 | 593 | 6.292 | 60.428 | - | 66.720 |
| Bestelako ibilgetua | 9.534 | 4.365 | 13.899 | 120.369 | - | 134.268 |
| Uneko ibilgetua eta aurrerakinak | 109.967.003 | 25.367.397 | 135.334.400 | 13.837.751 | (149.172.15) | - |
| | 109.982.236 | 25.372.355 | 135.354.591 | 14.018.548 | - | 149.373.139 |
| Amortizazio metatua | | | | | | |
| Inbertsioak autobideetan, tuneletan, zubietan eta bidesaria duten beste bide batzuetan. | - | - | - | (1.849.830) | - | (1.849.830) |
| Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak | (2.267) | (870) | (3.137) | (7.385) | - | (10.522) |
| Bestelako ibilgetua | (8.153) | (1.995) | (10.148) | (11.320) | - | (21.468) |
| | (10.420) | (2.865) | (13.285) | (1.868.535) | - | (1.881.820) |
| Balio garbia | 109.971.816 | 25.369.490 | 135.341.306 | 12.150.013 | - | 147.491.319 |

2009ko ekitaldian Sozietateak indarrean dauden inbertsio gastu finantzarioengatik 1.237.182 euro kapitalizatu ditu (2008ko abenduaren 31n 5.019.400 euro ziren) (ikusi 13. oharra).

2009ko ekitaldian zehar, Etxabarri-Luko ABEEak, hain zuzen ere “Vitoria-Gasteizetik Eibarrerako Autobidea, Etxabarri-Ibiña-Luko tartean, Eraikitzeko Proiektuaren” esleipendun, bitartekaritza salaketa bat jarri du Arabako Merkataritza Ganberaren aurrean Sozietatearen aurka. Guztira 8.638.033 euro da erreklamatzen den kopurua. Arabako Bideak sozietateak erantzuteko idazki bat aurkeztu du, salatzailearen nahiekiko erabat kontra azalduz. Urteko kontu laburtu hauek egin diren datan, bitartekaritza prozesu hori froga aldian dago, peritu batek txostena egitearen zain.

Sozietateak Luko ABEEaren eskabidea jaso zuen 2009ko otsailean, autobideko “Luko-Gipuzkoako probintziako muga tartea” 1. tartea eraikitzeari buruzkoa; hori ABEE honi esleitu zitzaion 2004ko ekitaldian, 75.637.555 eurotan. Horretarako, obra ziurtagiriak bidali ziren 2009ko abenduaren 31n; zenbatekoa, 79.898.709 euro. Eskabidea Luko ABEEk 2009an bidalitako obra amaierako ziurtagiriarekin duen desadostasunaren ondorioz egin da; horren bidez, jasandako gainbalio guztiak ordaintzeko eskatu du, bai eta eragindako kalte eta ezbehar guztiak ere.

Sozietatearen Administratzaileek uste dute auzi hauen ebazpenetik ez direla Sozietatearentzat garrantzitsuak izango diren pasiboak eratorriko.

Autobideetan, tuneletan, zubietan eta ordainpeko beste bide batzuetan egindako inbertsioen xehetasun eta mugimenduak, kontzeptuka, hauek dira:

| | Eurotan 2008 | Altak | Intsuldaketak | 2009 |
|---|---|---|---|---|
| Lur berdinketa | - | - | 22.260.219 | 22.260.219 |
| Drainatzea | - | - | 8.591.630 | 8.591.630 |
| Zoruak | - | - | 17.414.614 | 17.414.614 |
| Eraikuntza eta obra zibila | - | - | 67.339.124 | 67.339.124 |
| Bestelakoak | - | - | 33.566.564 | 33.566.564 |
| | - | - | 149.172.151 | 149.172.151 |
| Amortizazio metatua | - | (1.849.830) | - | (1.849.830) |
| | - | (1.849.380) | 149.172.151 | 147.322.321 |

(7) Alokairu operatiboak - Errentaria

Sozietateak hirugarren batzuei alokatu die jarduera garatzeko erabiltzen duen bulegoa, lokal bat, ibilgailu bat eta fotokopiagailu bat, alokairu operatiboaren araubidean.

Alokairu operatiboen kuoten zenbatekoa, gastu gisa onarturikoak 2009ko ekitaldian, 23.548 eurokoa izan da (320 euro 2008ko abenduaren 31n).

Bertan behera utzi ezin daitezkeen alokairu operatiboengatiko etorkizuneko gutxieneko ordainketak hauek dira:

| | Eurotan 2009 | 2008 |
|---|---|---|
| Urtebete arte | 16.721 | - |
| Urtebete eta bost urte artean | 12.137 | - |
| | 28.858 | - |

(8) Finantza aktiboak, kategorien arabera

(a) Finantza aktiboen sailkapena, kategorien arabera

Finantza aktiboen sailkapena, kategorien eta moten arabera, abenduaren 31n honakoa zen:

| | Eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2009 | | | |
| | Ez korrontea | | | Korrontea |
| | Kostu amortizatua edo kostua | Arrazoizko balioa | Guztira | Kostu amortizatua edo kostua |
| *Negoziatzeko mantendutako aktiboak* | | | | |
| Eratorritako finantza tresnak | - | 6.854.228 | 6.854.228 | - |
| Guztira | - | 6.854.228 | 6.854.228 | - |
| *Kobratu beharreko mailegu eta partidak* | | | | |
| Gordailuak eta fidantzak | 8.547 | - | 8.547 | - |
| Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | | | | |
| Bezeroak salmentengatik eta zerbitzuak eskaintzeagatik. | - | - | - | 797.625 |
| Bestelako zordunak | - | - | - | 16.205 |
| Kobratu beharreko beste kontu batzuk | - | - | - | - |
| Guztira | - | - | 8.547 | 813.830 |
| Finantza aktiboak, guztira | 8.547 | 6.854.228 | 6.862.775 | 813.830 |

Eurotan

| | 2008 | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Ez korrontea | | | Korrontea |
| | Kostu amortizatua edo kostua | Arrazoizko balioa | Guztira | Kostu amortizatua edo kostua |
| Negoziatzeko mantendutako aktiboak | | | | |
| Eratorritako finantza tresnak | - | 8.101.398 | 8.101.398 | - |
| Guztira | - | 8.101.398 | 8.101.398 | - |
| Kobratu beharreko mailegu eta partidak | | | | |
| Gordailuak eta fidantzak | 9.574 | - | 9.574 | - |
| Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | | | | |
| Bezeroak salmentengatik eta zerbitzuak eskaintzeagatik. | - | - | - | 332.225 |
| Kobratu beharreko beste kontu batzuk | - | - | - | - |
| Guztira | 9.574 | - | 9.574 | 332.225 |
| Finantza aktiboak, guztira | 9.574 | 8.101.398 | 8.110.972 | 332.225 |

Egoera balantze laburtuan kostu amortizatuko modura erregistratutako aktibo finantzarioen liburuko balioak ez du alde adierazgarririk erakusten horien arrazoizko balioaren aldean.

Finantza aktiboen kategorien araberako galera eta irabazi garbien zenbatekoa honakoa da:

| | Eurotan | |
|---|---|---|
| | Ez korrontea | |
| | Negoziatzeko mantendutako aktiboak | |
| | 2009 | 2008 |
| Arrazoizko balioaren aldaketa | (1.373.930) | 6.532.774 |
| Bestelakoak | - | (29.199) |
| Irabazi garbiak galera eta irabazietan | (1.373.930) | 6.503.575 |

(9) Finantza inbertsioak eta merkataritzako zordunak

(a) Finantza inbertsioak

Hona hemen finantza inbertsioen xehetasunak, abenduaren 31n:

| | Eurotan | |
|---|---|---|
| | Ez korrontea | |
| | 2009 | 2008 |
| Loturarik gabeak | | |
| Negoziaziotik eratorritako finantza baliabideak (10. oharra) | 6.854.228 | 8.101.398 |
| Gordailuak eta fidantzak | 8.547 | 9.574 |
| Guztira | 6.862.775 | 8.110.972 |

(b) Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk

Merkataritzako zordunen eta kobratu beharreko beste kontu batzuen xehetasuna 2009ko abenduaren 31n honakoa da:

| | Eurotan | |
|---|---|---|
| | Korrontea | |
| | 2009 | 2008 |
| *Taldea* | | |
| Beste zordun batzuk | 16.205 | - |
| *Loturarik gabeak* | | |
| Bezeroak | 797.625 | 332.225 |
| Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk | 5.549 | 220.536 |
| Guztira | 819.379 | 552.761 |

Beste zordun batzuk Arabako Foru Aldundiak mantendu duen saldoari dagozkio, AP-1 autobidearen erabiltzaileek, Arabako Lurralde Historikoan biziz gero, tarte arabarrean ordaindutako bidesarirako jarritako dirulaguntza programaren ondorioz.

(10) Eratorritako finantza tresnak

Hona hemen eratorritako finantza tresnen xehetasuna, abenduaren 31n:

| | Eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Arrazoizko balioak | | | |
| | 2009 | | 2008 | |
| | Ez korrontea | | | |
| | Aktiboak | Pasiboak | Aktiboak | Pasiboak |
| *Negoziatzeko mantendutako eratorriak* | | | | |
| *Interes tasaren eratorriak* | | | | |
| Interes tasaren trukeak (14. oharra) | - | 9.144.332 | - | 9.450.600 |
| Inflazioaren estalduraren eratorriak (9. oharra) | 6.854.228 | - | 8.101.398 | - |
| Antolatu gabeko merkatuetan kontratatutikoetatik eratorritakoak guztira | 6.854.228 | 9.144.332 | 8.101.398 | 9.450.600 |

Sozietateak 2004ko ekitaldian interes tasen eta inflazioen estaldurak kontratatu zituen, autobidearen ustiapen epean fluktuazioengatiko arriskuak estaltzeko, bai interes tasen gainean, bai inflazioaren gainean. Zentzu horretan, Sozietateko administratzaileek ezin izan dute estalduren kontabilitatea aplikatu, eta eratorriak negoziatzeko mantendutakotzat sailkatu dira.

Zor zaharraren A tarteari dagokion amortizazio aldirako, interes tasen estaldura kontratu bat izenpetu zen. Hori dela eta, Arabako Bideak, S.A. sozietateak tasa finkoa (% 4,64) ordainduko die finantza erakundeei eta truke akordioa bere gain hartu duen estaldura erakundeak, berriz, tasa aldakorra ordainduko du (Euribor sei hilabetera). Kontratu hori zor zaharraren A tartearen % 75ari (46.950.000 euro) dagozkion amortizazioak ordaintzeko izenpetu zen. Zor hori, hasiera batean, 62.600.000 eurotan jotzen zen, gutxi gorabehera (ikusi 14 (b) oharra).

24.000.000,00 euroko nominala duen lehen bonu jaulkipenerako (ikusi 14 (b) oharra), interes tasen estaldura kontratu bat izenpetu zen. Hori dela eta, Arabako Bideak, S.A. sozietateak tasa finkoa (% 4,4975; alegia, 13.295.000,00 euro) ordainduko die finantza erakundeei -2017ko abenduan amaitu arte- eta truke akordioa bere gain hartu zuen estaldura erakundeak, berriz, tasa aldakorra ordainduko du (Euribor sei hilabetera). Bigarren bonu jaulkipenerako (ikusi 14 (b) oharra), interes tasen estaldura kontratu bat izenpetu zen. Hori dela eta, Arabako Bideak, SA sozietateak tasa finkoa (% 5,22) ordainduko die finantza erakundeei eta truke akordioa bere gain hartu zuen estaldura erakundeak, berriz, tasa aldakorra ordainduko du (Euribor sei hilabetera). Azken estaldura honek nominal gisa ordaintzeko dagoen kopuru nagusiaren % 75 gehi zero kupoia jaulkitzeagatiko korrituak hartzen ditu.

Era berean, inflazioari aurre egiteko kontratua ere sinatu zen 2004an; kontuan hartutako diru sarreren arabera estalitako nozionalak ustiapen aldian bidesarien zioz lortutako diru sarreren % 70 dira. Kontuan hartutako indize finkoa % 2,83 da.

(11) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak

Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak banku erakundeetan 2008ko eta 2009ko abenduaren 31n mantendutako saldoari dagokio, gehi egun horretan sortutako interesei (33.937 euro eta 68.118 euro hurrenez hurren).

2009ko eta 2008ko ekitaldian saldo horiengatik galera eta irabazien kontuan onartutako sarreren zenbateko osoa 96.033 euro eta 101.913 euro izan da hurrenez hurren.

(12) Funts propioak

Ondare garbiaren eraketa eta mugimendua ondare garbiko aldaketen egoera laburtuan aurkezten dira.

(a) Kapitala

2009ko abenduaren 31n Arabako Bideak, S.A.ren kapital soziala 429.320 akzio izendunek ordezkatzen dute, bakoitzak 100 euroko balio nominala duela, erabat ordainduak. Akzio horiek eskubide politiko eta ekonomiko berak dituzte. Sozietatearen kapitalaren % 100 akziodun bakarra den Arabako Foru Aldundiak harpidetzen eta ordaintzen du.

Ez dago akzioak modu librean eskualdatzeko murrizketarik

2009ko ekitaldian akzioen mugimendua honakoa izan da:

| | Eurotan | |
|---|---|---|
| | Akzio arruntak | |
| | 2009 | 2008 |
| Urtarrilaren 1ean | 408.500 | 356.800 |
| Kapital zabalkuntzak | 20.820 | 51.700 |
| Abenduaren 31n | 429.320 | 408.500 |

Akziodunen Batzar Orokorrak 2009ko ekainaren 16an eta 2009ko ekainaren 23an egindako bileran erabakitakoari jarraiki, Sozietateak kapital soziala handitu du, 400.000 eurotan eta 1.682.000 eurotan hurrenez hurren, 4.000 eta 16.820 akzio izendun arrunten jaulkipenaren bidez, 100 euroko balio nominalekoak eta, era berean, sinatzeko unean bertan ordaintzekoak. Jaulkipen osoa akziodun bakarrak sinatu zuen eta eskudirutan ordaindu zen. Kapital zabalkuntza hori jendaurrean jarri da, 2009ko abenduaren 30eko eskrituraren bidez, eta Arabako Merkataritza Erregistroan inskribatu zen 2010eko urtarrilaren 27an.

Akziodunen Batzar Orokorrak 2007ko abenduaren 28an egindako bileran erabakitakoari jarraiki, Sozietateak kapital soziala handitu du, 5.170.000 eurotan, 51.700 akzio izendun arrunten jaulkipenaren bidez, 100 euroko balio nominalekoak eta, era berean, sinatzeko unean bertan ordaintzekoak. Jaulkipen osoa akziodun bakarrak sinatu zuen eta eskudirutan ordaindu zen. Kapital zabalkuntza hori jendaurrean jarri da, 2008ko otsailaren 25eko eskrituraren bidez, eta Arabako Merkataritza Erregistroan inskribatu zen 2008ko apirilaren 16an.

(b) Erreserbak

Erreserba eta emaitzen epigrafean sartutako kontuetako eraketa eta mugimendua jarraian zehaztutakoak dira:

| | Eurotan | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Legezko erreserba | Erreserba boluntarioak | Emaitzak Aurreko ekitaldietako negatiboak | Emaitza ekitaldiarena | Guztira |
| 2008ko urtarrilaren 1eko saldoak | 91.332 | 796.496 | - | 639.672 | 1.527.500 |
| 2007ko ekitaldiko mozkinaren banaketa | | | | | |
| Erreserba | 63.967 | 575.705 | - | (639.672) | - |
| 2008ko ekitaldiko galerak | - | - | - | (2.760.836) | (2.760.836) |
| 2008ko abenduaren 31ko saldoak | 155.299 | 1.372.201 | - | (2.760.836) | (1.233.336) |
| 2008ko ekitaldiko galeraren aplikazioa | | | | | |
| Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak | | | (2.760.836) | 2.760.836 | - |
| 2009ko ekitaldiko galerak | - | - | - | (2.996.945) | (2.996.945) |
| 2009ko abenduaren 31ko saldoak | 155.299 | 1.372.201 | (2.760.836) | (2.996.945) | (4.230.281) |

*(i)* *Legezko erreserba*

Legezko erreserba Sozietate Anonimoei buruzko Legearen 214. artikuluaren arabera zuzkitu da. Izan ere, horrek ekitaldiko mozkinen % 10aren pareko kopuru bat, gutxienez, sozietatearen kapitalaren % 20ra iritsi arte, bertara bideratuko dela ezartzen du.

Ezin da banatu eta galerak konpentsatzeko erabiltzen bada, birjarri egin beharko da etorkizuneko mozkinekin, helburu horretarako beste erreserbarik eskura ez dagoen kasuetan.

2009 eta 2008ko abenduaren 31n Sozietateak erreserba hori Sozietate Anonimoen Legeak ezarritakoaren araberako gutxieneko mugaren azpitik du ezarria.

*(ii)* *Borondatezko erreserbak*

Borondatezko erreserbak, galera metatuak direla eta, ez dira erabilera librekoak.

## (13) Finantza pasiboak, kategorien arabera

### (a) Finantza pasiboen sailkapena, kategorien arabera

Finantza pasiboen sailkapena, kategorien eta moten arabera, abenduaren 31n honakoa zen:

| | Eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2009 | | | |
| | Ez korrontea | | | Korrontea |
| | Arrazoizko balioa | Kostu amortizatua edo kostua | Guztira | Kostu amortizatua edo kostua |
| Negoziatzeko mantendutako pasiboak | | | | |
| Eratorritako finantza tresnak | 9.144.332 | - | 9.144.332 | - |
| Guztira | 9.144.332 | - | 9.144.332 | - |
| Ordaindu beharreko zorrak eta partidak | | | | |
| Kreditu erakundeekiko zorrak | | | | |
| Tasa aldakorra | - | 102.183.642 | 102.183.642 | 710.959 |
| Beste finantza pasibo batzuk | - | 2.225.336 | 2.225.336 | 8.772.635 |
| Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk | | | | |
| Hornitzaileak | - | - | - | 1.322.970 |
| Ordaindu beharreko beste kontu batzuk | - | - | - | 574.820 |
| Guztira | 9.144.332 | 104.408.978 | 113.553.310 | 10.806.564 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Finantza pasiboak, guztira | 9.144.332 | 104.408.978 | 113.553.310 | 10.806.564 |

| | Eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2008 | | | |
| | Ez korrontea | | | Korrontea |
| | Arrazoizko balioa | Kostu amortizatua edo kostua | Guztira | Kostu amortizatua edo kostua |
| Negoziatzeko mantendutako pasiboak | | | | |
| Eratorritako finantza tresnak | 9.450.600 | - | 9.450.600 | - |
| Guztira | 9.450.600 | - | 9.450.600 | - |
| Ordaindu beharreko zorrak eta partidak | | | | |
| Kreditu erakundeekiko zorrak | | | | |
| Tasa aldakorra | - | 63.400.000 | 63.400.000 | 24.088.216 |
| Beste finantza pasibo batzuk | - | 1.097.391 | 1.097.391 | 8.391.483 |
| Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk | | | | |
| Hornitzaileak | - | - | - | 87.566 |
| Ordaindu beharreko beste kontu batzuk | - | - | - | 26.252 |
| Guztira | 9.450.000 | 64.497.391 | 73.947.391 | 32.593.517 |
| Finantza pasiboak, guztira | 9.450.000 | 64.497.391 | 73.947.391 | 32.593.517 |

Egoera balantze laburtuan kostu amortizatuko modura erregistratutako pasibo finantzarioen liburuko balioak ez du alde adierazgarririk erakusten horien arrazoizko balioaren aldean.

Finantza pasiboen kategorien araberako galera eta irabazi garbien zenbatekoa honakoa da:

| | Eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2009 | | 2008 | |
| | Pasiboak negoziatzeko Mantendu direnak | Ordaintzeko Zorrak eta partidak | Pasiboak negoziatzeko Mantendu direnak | Ordaintzeko Zorrak eta partidak |
| Arrazoizko balioaren aldaketa | 306.268 | - | (9.305.384) | - |
| Bestelakoak | - | - | 254.505 | - |
| Finantza gastuak kostu amortizatuaren metodoa aplikatuz | - | (1.367.586) | - | (5.019.400) |
| Galera garbiak, galera eta irabazietan | 306.268 | (1.367.586) (6. oharra) | (9.050.879) | (5.019.400) (6. oharra) |

(14) Finantza zorrak eta merkataritzako hartzekodunak

(a) Zorrak

Hona hemen zorren egoera zehatza, abenduaren 31koa:

| | Eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2009 | | 2008 | |
| | Ez korrontea | Korrontea | Ez korrontea | Korrontea |
| *Loturarik gabeak* | | | | |
| Kreditu erakundeekiko zorrak | 102.183.642 | 316.358 | 63.400.000 | 23.200.000 |
| Interesak | - | 394.601 | - | 888.216 |
| | 102.183.642 | 710.959 | 63.400.000 | 24.088.216 |
| Negoziaziotik eratorritako finantza baliabideak (10. oharra) | 9.144.332 | - | 9.450.600 | |
| Beste finantza pasibo batzuk | 2.225.336 | - | 1.097.391 | - |
| Ibilgetuaren hornitzaileak | - | 8.772.635 | - | 8.391.483 |
| Guztira | 113.553.310 | 9.483.594 | 73.947.991 | 32.479.699 |

2009ko eta 2008ko abenduaren 31n beste finantza pasibo ez korronteak bat datoz sortutako eta data horretan ordaintzeko dauden zenbatekoekin, bonuen lehen jaulkipenerako sinatutako truke akordioarekin uztartuta (ikusi 10. oharra).

(b) Zorrei buruzko bestelako informazioa

*(i) Zorren ezaugarri nagusiak*

Sozietateak 2009ko abenduaren 31n honako maileguak ditu:

| | Eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2009 | | 2008 | |
| | Erabilia | Muga | Erabilia | Muga |
| Kreditu sindikatua, A tartea | 66.500.000 | 66.500.000 | 63.400.000 | 66.500.000 |
| Kreditu sindikatua, B tartea | - | 8.000.000 | - | 8.000.000 |
| Kreditu sindikatua, eraikuntza | - | 24.000.000 | 22.900.000 | 24.000.000 |
| BEZ kreditua | - | - | 300.000 | 6.000.000 |
| Mendeko kreditua | 12.000.000 | 12.000.000 | - | 12.000.000 |
| Kreditu sindikatua, eraikuntza | 24.000.000 | 24.000.000 | - | - |
| | 102.500.000 | | 86.600.000 | |

2004ko abenduaren 22an, Arabako Bideak, SA sozietateak epe luzeko kreditu sindikatua hitzartu zuen, gehienez ere 74.500.000 eurokoa.

Kredituaren zenbateko osoa bi tartetan banatzen da: A eta B tarteak. A tarteari dagokion aldea proiektuaren inbertsio osoaren aurrekontua zati batean finantzatzeko da, eta horren epemuga 2031ko ekainaren 30a da. B tarteari dagokion aldea diruzaintzako desorekak finantzatzeko da; horren epemuga 2012ko abenduaren 31 da.

Mailegu horiei dagokien interes tasa honako taula honetan adierazi da:

| Tartea | Interes aldia | Marjina |
|---|---|---|
| A tartea | 1. xedapenetik 2013/12/31ra | % 1,55 |
| | 2014/01/01etik 2019/12/31ra | % 1,65 |
| | 2020/01/01etik azken mugaegunera arte | % 1,80 |
| B tartea | Zerbitzuan hasten den egunetik 2012/12/31ra arte | % 2 |

Interes tasak Euriborra gehi marjina izango dira.

Era berean, 2004ko abenduaren 22an eraikuntzarako kreditu kontratu sindikatua sinatu zen, bonuen bidez mugigarria. Zenbatekoa, gehienez, 24.000.000 euro, Proiektuaren inbertsio osoaren aurrekontua zati batean finantzatzeko da (BEZa aparte).

Mailegu horren epemuga autobidea abian jarri ondoko hiru hileen arteko lehen data da edo 2010eko urtarrilaren 1a. Mailegu horri dagokion interes tasa honakoa izan da: Euriborra gehi % 1,55.

Eraikuntza lanak egiteko kontratu kreditu honi dagokionez, azken mugaegunean, erakunde kreditu emaileek kredituaren zenbatekoa berriro finantzatzeko konpromisoa hartzen dute bere gain, bonu jaulkipen baten edo gehiagoren bidez. Horiez baliatuta, eraikuntza lanak egiteko kreditu kontua amortizatuko da azken mugaegunean. Bonu jaulkipenen ezaugarriak honako hauek ziren:

| Jaulkipena / Urtea | Bonu mota | Zenbatekoa (eurotan) | Bonuaren epea | Marjina |
|---|---|---|---|---|
| Lehenengoa / 2009 | Zero kupoia | 24.000.000 | 10 urte | % 1,50 |
| Bigarrena / 2018 | Urteko kupoia | 24.000.000 + 1. jaulkipeneko korrituak | 10 urte | % 1,25 |
| Hirugarrena / 2028 | Urteko kupoia | 24.000.000 + 1. jaulkipeneko korrituak | 4 urte | % 1,25 |

Azkenik, jaulkipen hauek ez dira gauzatu, Autobidearen eraikuntzan izandako atzerapenengatik. Halaber, 2009ko abenduaren 16an, eraikuntzako kreditu sindikatuko kontratu berri bat sinatu da 24.000,00 euroko zenbatekoan, eta hori erabili egin da eraikuntza kontratuaren babesean emandako aurreko kreditua erabat amortizatzeko eta baliogabetzeko. Kredituaren saldo bizia erabat amortizatuta egon beharko da amaierako epemugarako, eta epemuga hori 2017ko abenduaren 16a da. Aplikatuko den interes tasa 6 hileko Euribor gehi % 1,5 izango da.

Bestalde, jasandako BEZaren ordainketa finantzatzeko asmoz, 2004ko abenduaren 22an BEZari aurre egiteko kreditu kontratua sinatu zen, guztira 6.000.000,00 eurokoa, eta horren interes tasa honakoa da: Euriborra + % 0,70. 2009ko martxoaren 30ean amaitzen da.

Halaber, 2008ko apirilaren 23an, Sozietateak mailegu kontratu sindikatua sinatu zuen, 12.000.000 eurotan, Proiektuaren gainkostuak zati batean finantzatzeko, bai eta A tarterako eta B tarterako epe luzerako kredituen interesak eta eraikuntzarako kreditu kontratuaren interesak ordaintzeko ere, hura osorik xedatu ondoren. Interes tasa Euribor + 0,85 da, eta epemuga 2032ko irailaren 30a izango da.

Sozietateak 2004an interes estalduraren eta inflazio estalduraren kontratuak kontratatu zituen, maileguen xedapen eta amortizazio aldietarako eta autobidearen ustiapen eperako (ikusi 10. oharra).

Gainera, 2004ko ekitaldian Sozietateak honako hauetatik eratorritako kreditu eskubideen pignorazio kontratuak sinatu zituen:

- Jasandako BEZ itzultzeko eskaerak.
- BEZ kontua.
- Estaldura kontratuak.
- Proiektuaren kontratuak.
- Proiektuaren kontuak.

2009ko ekitaldian, Sozietateak aurreko bermeak berresteko kontratua sinatu du.

Epemugen araberako finantza pasiboen sailkapena honakoa da 2009ko abenduaren 31n:

| | Eurotan | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | Ondoko urteak | Guztira |
| Kreditu erakundeekiko zorrak | 783.667 | 1.154.316 | 1.574.524 | 1.998.2553 | 96.672.882 | 102.183.642 |
| Negoziaziotik eratorritako finantza baliabideak (8. oharra) | - | - | - | - | 9.144.332 | 9.144.332 |
| Beste finantza pasibo batzuk | - | - | - | - | 2.225.336 | 2.225.336 |
| | 783.667 | 1.154.316 | 1.574.524 | 1.998.253 | 108.042.550 | 113.553.310 |

Epemugen araberako finantza pasiboen sailkapena honakoa da 2008ko abenduaren 31n:

| | Eurotan | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | Ondoko urteak | Guztira |
| Kreditu erakundeekiko zorrak | 316.358 | 783.667 | 1.154.316 | 1.574.524 | 59.571.135 | 63.400.000 |
| Negoziaziotik eratorritako finantza baliabideak (8. oharra) | - | - | - | - | 9.450.600 | 9.450.600 |
| Beste finantza pasibo batzuk | - | - | - | - | 1.097.391 | 1.097.391 |
| | 316.358 | 783.667 | 1.154.316 | 1.574.524 | 10.547.991 | 73.947.991 |

(c) Tunelak eta autobideak finantzatzeagatik geroratutako finantza gastuak

4(g) oharrean aipatu denari jarraiki, Sozietateak autobidearen finantzazioari dagozkion finantza gastuak kapitalizatu ditu 2009ko ekitaldian zehar. Horiek berreskuratzea aurreikusi da indarrean dagoen Ekonomi eta Finantza Planean oinarrituta. Horren xehetasunak hauek dira:

| | Eurotan |
|---|---|
| 2008ko abenduaren 31ko saldoa | - |
| Altak | 3.550.950 |
| 2009ko abenduaren 31ko saldoa | 3.550.950 |

(d) Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk

Merkataritzako hartzekodunen eta ordaindu beharreko beste kontu batzuen xehetasuna abenduaren 31n honakoa da:

| | Eurotan | |
|---|---|---|
| | Korrontea | |
| | 2009 | 2008 |
| *Lotura dutenak* | | |
| Hornitzaileak | - | 15.647 |
| *Loturarik gabeak* | | |
| Hornitzaileak | 1.322.970 | 71.919 |
| Hartzekodunak | 574.820 | 26.252 |
| Administrazio Publikoekin beste zor batzuk | 128.374 | 17.490 |
| Guztira | 2.026.164 | 131.308 |

Lotura duten sozietateekiko saldo hartzekoduna Arabako Lanak, S.A foru sozietate publikoarekin mantendutakoari zegokion 2008an.

(15) Zerga egoera

Administrazio Publikoekiko saldoen xehetasuna abenduaren 31n honakoa da:

| | Eurotan | |
|---|---|---|
| | Korrontea | |
| | 2009 | 2008 |
| Aktiboak | | |
| Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta antzekoak | 5.549 | 220.536 |
| Pasiboak | | |
| Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta antzekoak | 106.039 | - |
| Gizarte Segurantza | 4.377 | 4.134 |
| Atxikipenak | 17.958 | 13.356 |
| | 128.374 | 17.490 |

Sozietateari aplikagarriak zaizkion zerga nagusien hurrengo ekitaldietako ikuskapena oraindik ez dute egin zerga agintariek:

| Zerga | Irekita dauden ekitaldiak |
|---|---|
| Balio Erantsiaren gaineko Zerga | 2006-2009 |
| Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga | 2006-2009 |

(16) Saldoak eta transakzioak, lotura duten alderdiekin

(a) Saldoak, lotura duten alderdiekin

Saldo hartzekodunen xehetasuna Taldeko enpresekin, abenduaren 31n, 9(b) eta 14(d) oharretan azaltzen da.

Saldoen banakapena, kategorien arabera, honakoa da:

| | Eurotan | |
|---|---|---|
| | 2009 | 2008 |
| Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | | |
| Bestelako zordunak | 16.205 | - |
| Aktibo korronteak, guztira | 16.205 | - |
| Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk | | |
| Hornitzaileak | - | 15.647 |
| Pasibo korronteak, guztira | - | 15.647 |

Saldo zorduna 2009ko abenduaren 31n bat dator sozietate menderatzaileak mantendutakorekin.

Lotura duten alderdiekiko saldoa 2008ko abenduaren 31n Arabako Lanak SA foru sozietate publikoari dagokio.

(b) Sozietatearen transakzioak, bazkide bakarrarekin

- 2004ko urtarrilaren 20ko 32/2004 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Gasteiztik Eibarrera doan autobidearen Arabako tartea finantzatzea ahalbidetuko duen egituratze ekonomikoari buruzko Foru Arauaren Proiektua onartu zuen.

- 2004ko martxoaren 30eko 246 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Arabako Bideak, S.A.rekin hitzarmena izenpetzea onetsi zuen, haren altxortegiko funts likidoak Arabako Foru Aldundiaren kutxa baliabideetan integratzeko.

- 2004ko ekainaren 22ko 44/2004 Foru Dekretuaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Vitoria-Gasteiztik Eibarrera doan AP-1 autobidearen Arabako tartea erabiltzeagatik ordaindu beharreko bidesaria ezarri zuen.

- Arabako Bideak, SA sozietateko Akziodunen Batzar Orokorrak 2004ko martxoaren 9an hartutako erabakian, onartu zen Arabako Bideak SA sozietatearen kapitala handitzean parte hartzea, guztira 103.914 akzio harpidetuz.

- Uztailaren 30eko 653/2004 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onartu zuen Arabako Bideak, SA sozietatearen kapital handitzean parte hartzea, guztira 49.086 akzio harpidetuz.

- Abenduaren 21eko 1024/2004 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onartu zuen Arabako Bideak, SA sozietatearen kapitala handitzean parte hartzea, guztira 203.198 akzio harpidetuz.

- Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak, 2005eko apirilaren 13ko 428 Foru Aginduaren bidez, erabaki zuen Arabako Bideak, S.A.ri “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea Lukotik Gipuzkoako probintzia mugarainoko zatian egiteko obrek eragindako Legutioko presio handiko gas sarea aldatzeko Proiektua” bidaltzea, bere finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Herri Lan eta Garraio Saileko foru diputatuak, 2005eko ekainaren 3ko 640 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, erabaki zuen Arabako Bideak, SAri bidaltzea “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea egiteko ukituko diren linea elektrikoak aldatzeko proiektua. Etxabarri-Ibiña Luko Tartea”, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan burutzeko.

- Diputatuen Kontseiluak, 2005eko ekainaren 7ko erabakiaren bitartez, erabaki zuen Arabako Bideak, S.A.ri “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri Ibiñatik Lukorako zatian egiteko obrek eragindako Bartzelona-Bizkaia-Valentzia gasbidea aldatzeko Proiektua” bidaltzea, bere finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Diputatuen Kontseiluak, 2005eko irailaren 23ko 808 Erabakiaren bitartez, behin betiko onartu zuen “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri-Ibiñatik Lukorako tartean egiteko proiektua”.

- Diputatuen Kontseiluak, 2005eko azaroaren 8ko Erabakiaren bitartez, erabaki zuen Arabako Bideak, SArentzat 5.170.000 euroko kopurua erreserbatzea, AP-1 Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidearen Arabako tartearen eraikuntzan eta ustiapenean finantza askitasuna ziurtatzen duten geroko kapital zabalkuntzak bermatzearren.

- Diputatuen Kontseiluak, 2005eko azaroaren 15eko 1044 Erabakiaren bitartez, erabaki zuen Arabako Bideak, S.A.ri “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri Ibiñatik Lukorako zatian egiteko obrek eragindako Barcina-Itxaso 400 kV-ko linea aldatzeko Proiektua” bidaltzea, bere finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak, 374 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, xedatu zuen Arabako Bideak, SAri bidaltzea “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri-Luko tartean egiteko obrek eragindako telefono lineak aldatzeko proiektua”, horren finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak, 610 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, xedatu zuen Arabako Bideak, SAri bidaltzea “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri-Luko tartean egiteko proiektuak Etxabarrin aurreikusten duen ordainlekua argindarrez hornitzeko instalazio eta egokitze proiektua”, horren finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak, 611 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, xedatu zuen Arabako Bideak, SAri bidaltzea “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri-Luko tartean egiteko proiektuak Etxabarrin aurreikusten duen lotunea argiztatzeko hiru aginte zentroak argindarrez hornitzeko instalazio eta egokitze proiektua”, horren finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Diputatuen Kontseiluak, 2006ko uztailaren 4ko erabakiaren bitartez, erabaki zuen Arabako Bideak, S.A.ri “Vitoria-Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri Ibiñatik Lukorako zatian egiteko obrek eragindako Bartzelona-Bilbo gasbidea aldatzeko Proiektua” bidaltzea, bere finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak, 2007ko otsailaren 8ko 65 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, “Lukoko tunelaren hegoaldeko ahoan energia elektrikoa hornitzeko instalazioa egiteko proiektua” bidaltzea xedatu zuen, finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak, 2007ko otsailaren 8ko 64 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, xedatu zuen Arabako Bideak, SAri bidaltzea “Lukoko tunelaren iparraldeko ahoan energia elektrikoa hornitzeko instalazioa egiteko proiektua”, horren finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak, 2007ko apirilaren 17ko 296 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, “Lukoko ordainlekuari eta Lukoko lotuneko argiztapeneko aginte zentroei energia elektrikoa hornitzeko instalazioa egiteko proiektua” bidaltzea xedatu zuen, finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak, 2007ko uztailaren 16ko 564 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, "Lukoko tunelari energia elektrikoa hornitzeko azpiegitura berriaren baldintza tekniko eta ekonomikoen azterlana" onartzea eta Arabako Bideak, SAri bidaltzea xedatu zuen, horren finantzaketarako eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

- Diputatuen Kontseiluak, 2007ko abenduaren 28ko 1181 zenbakiko Erabakiaren bidez, Arabako Bideak, SAren sozietate kapitalaren zabalkuntzan parte hartzea erabaki zuen: 5.170.000 euro.

- Diputatuen Kontseiluak, 2008ko apirilaren 22ko 229 zenbakiko Erabakiaren bitartez, Arabako Bideak, S.A. foru sozietate publikoaren zorpetzearen fidantzamendua onestea erabaki zuen; abenduaren 18ko 22/2007 Foru Arauak baimendua. Zenbatekoa: 12.000.000 euro.

- Diputatuen Kontseiluak, 2008ko apirilaren 22ko 230 zenbakiko Erabakiaren bitartez, AP-1 Gasteiz-Eibar autobidea Araban egin, zaindu, mantendu, ustiatu eta finantzatzeko Arabako Bideak SAk eta Arabako Foru Aldundiak hitzartutako akordioa aldatzea onetsi du.

- Diputatuen Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 16ko 293 Erabakian, erabaki egin zen Arabako Bideak sozietatea atxikitzea Eibar-Gasteiz AP-1 autobidearen eragiketa eta ustiapen kontratuari. Kontratu hori Bidegi SAren eta Bidelan SAren artekoa zen, eta atxikipen berriaren xedea tarte arabarrean zabalkundea egitea zen.

- 2009ko maiatzaren 19n, Diputatuen Kontseiluak Zerga Premiako Dekretu Arautzaile bat egitea erabaki du 3. zenbakiarekin. Horren bitartez, indargabeturik geratzen da ekainaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 44/2004 Foru Dekretua, hain zuzen ere Vitoria-Gasteiz AP-1 Autobidea, tarte arabarrean, erabiltzeagatik ordaindu beharreko bidesariaren zenbatekoa finkatzen duena.

- Diputatuen Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 19ko 292 Erabakian, "Arabako Bideak SA" enpresari eskatzen zaio, AP-1 autobidearen Arabako zatia erabiltzeagatik, Arabarrei haiek ordaindu beharreko bidesaria ordaintzen laguntzeko, programa bat garatzeko.

- Diputatuen Kontseiluaren 2009ko ekainaren 19ko 388 Erabakian, erabaki egin zen Sozietatearen kapitala zabaltzea. Horretarako, 100 euroko balio nominala zuten 4.000 akzio sinatu ziren. Horrek 400.000 euroko zenbatekoa ekarri zuen.

- Diputatuen Kontseiluaren 2009ko ekainaren 23ko 407 Erabakian, erabaki egin zen Sozietatearen kapitala zabaltzea. Horretarako, 100 euroko balio nominala zuten 16.820 akzio sinatu ziren. Horrek 1.682.000 euroko zenbatekoa ekarri zuen.

(c) Sozietatearen transakzioak, lotura duten alderdiekin

Sozietatearen lotura duten alderdiekiko transakzioen zenbatekoak honakoak dira:

| | Eurotan | |
|---|---|---|
| | Lotura duten beste alderdi batzuk | |
| | 2009 | 2008 |
| Gastuak | | |
| Hartutako bestelako zerbitzuak | - | 218.791 |

Lotura duten alderdiek emandako bestelako zerbitzuak Arabako Lanak, S.A foru sozietate publikoak fakturatutako zenbatekoari dagozkio, alderdiek 2004ko azaroaren 8an sinatutako lankidetza hitzarmenari jarraiki; hori aldatu egin da 2008ko martxoaren 14an. Hitzarmen horren bidez, Arabako Lanak, S.A.k Sozietateari obra zuzendaritza, aholkularitza tekniko, ekonomiko, finantzario eta juridiko eta laguntza orokorreko lanengatiko faktura egiten dio.

Arabako Lanak, SA foru sozietate publikoak egin ditu aholkularitza tekniko, ekonomiko eta juridikoko lanak.

2009an ez da transakziorik egon lotura duten alderdiekin.

(d) Sozietateko administratzaileei eta Sozietateko Goi Zuzendaritzako langileei buruzko informazioa

Administrazio Kontseiluko kideek ez dituzte lansariak, dietak edo bestelako ordainsariak sortu 2009ko eta 2008ko abenduaren 31 arteko ekitaldietan, eta ez dituzte emandako aurrerakin edo kredituen saldoak mantentzen Sozietatearekin (egun horretara arte). 2009ko eta 2008ko ekitaldietan Sozietateko Goi Zuzendaritzak emandako ordainsarien zenbatekoa 80.214 euro eta 78.334 euro izan da hurrenez hurren.

Sozietateak, 2009ko abenduaren 31n eta 2008ko abenduaren 31n, ez du inolako betebeharrik, pentsioei eta bizitza aseguruei dagokienez, Sozietateko administrazio organoko kide izan direnekin edo gaur egungo kideekin, eta ez du haien konturako betebeharrik berme gisa.

(e) Administratzaileen partaidetzak eta karguak bestelako sozietateetan

Sozietateko administratzaileek ez dute partaidetzarik Sozietateak garatutako gizarte helburu berdintsua edo osagarria duten enpresetan. Horietan burututako edota egindako kargu, funtzio eta jarduerak erantsitako Eranskinean xehatu dira.

2010eko martxoaren 25ean, Alfredo de Miguel Aguirre jaunak Sozietatearen administratzailearen kargua utzi du, eta Iñaki Nafarrete Kortabarria jaunak hartu du haren tokia.

## (17) Sarrerak eta gastuak

### (a) Negozio zifren zenbateko garbia

2009ko maiatzean, Sozietatea bidesaria kobratzetik etorritako sarrerak edukitzen hasi da.

2008an, eskuratutako sarrerak lehen eta bigarren tarteetako obren esleipendun izandako kontratistei egindako fakturaziotik etorritakoak izan ziren. Fakturatutako kopurua agindutako obrari dagokion ordainketa egiaztagirien edo agiri bakoitzaren zenbatekoaren % 1 da, finantza kostua eta BEZa sartu gabe, zuzendari teknikoak obrak kudeatu eta gainbegiratzeko gastuak eta obrako materialak eta unitateak egiaztatzeko eta probatzeko agindutako gastuak ordaintzearen kontzeptuan.

### (b) Gizarte kargak

Gizarte kargen xehetasunak hauek dira:

| | Eurotan | |
|---|---|---|
| | 2009 | 2008 |
| Enpresaren kontura doan Gizarte Segurantza | 42.815 | 28.212 |
| Beste gizarte gastu batzuk | 16.641 | 3.276 |
| | 59.456 | 31.488 |

## (18) Langileei buruzko informazioa

Sozietateak 2008ko eta 2009ko ekitaldietan izandako langile kopurua, batez beste, eta kategoriatan banakatua, honakoa da:

| | Langileen batez besteko kopurua | |
|---|---|---|
| | 2009 | 2008 |
| Zuzendariak | 1 | 1 |
| Teknikariak | 2 | 1 |
| Administraziokoak | 1 | 1 |
| | 4 | 3 |

2008ko eta 2009ko ekitaldien amaieran langileen eta administratzaileen banaketa, sexuaren arabera, honakoa da:

| | 2009 | | 2008 | |
|---|---|---|---|---|
| | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak |
| Administratzaileak | 1 | 6 | 1 | 6 |
| Zuzendari kudeatzailea | - | 1 | - | 1 |
| Teknikaria | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Ofizial administrataria | 1 | - | 1 | - |
| | 3 | 8 | 3 | 8 |

(19) Auditoretza ordainsariak

Sozietatearen urteko kontu laburtuen auditoretza enpresak 2009 eta 2008ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan zehar fakturatutako ordainsari garbiak 9.900 euro eta 8.000 euro izan dira hurrenez hurren, auditoretza zerbitzuak emateagatik.

Aurreko zenbatekoak barne hartzen ditu 2009ko eta 2008ko ekitaldietan egindako zerbitzuen gaineko ordainsari guztiak, fakturazioaren unea edozein izan dela ere.

ARABAKO BIDEAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Arabako Bideak SA Sozietatearen administratzaileek bilera egin zuten 2010eko maiatzaren 21ean. Bertan, 2009ko urtarrilaren 1aren eta 2009ko abenduaren 31ren artean dagoen ekitaldiko urteko kontu laburtuak aurkeztu dira. Urteko kontu laburtuak idazki honen aurretik datozen agiriek eratzen dituzte.

Sinatzaileak:

Luis Alberto Zarrabeitia Villanueva jn.
(Lehendakaria)

Iñaki Nafarrate Kortabarria jn.
(Kidea)

Mikel Mintegi Areitioaurtena jn.
(Kidea)

José Luis Cimiano Ruíz jn.
(Kidea)

Juan Carlos Peral Santos jn.
(Kidea)

Emilio de Francisco Ugartondo jn.
(Kidea)

Arantza Zenarruzabeitia Beldarrain and.
(Kidea)

ARABAKO BIDEAK, S.A
(Kide bakarreko sozietatea)

Partaidetza eta kargu xehetasunak, administratzaileen beste sozietate batzuetan

2009ko abenduaren 31a eta 2008

| | | |
|---|---|---|
| Luis Alberto Zarrabeitia Villanueva | Arabako Lanak, SA | Lehendakaria |
| | CTV Gasteizko Garraio Zentroa | Kidea |
| | Araba Garapen Agentzia, SA | Kidea |
| Jose Luis Cimiano Ruiz | Araba Garapen Agentzia, SA | Kidea |
| | Fernando Buesa Arena, SA | Kidea |
| | Garapenerako Euskadiko Kapital Sozietatea, S.A. | Kidea |
| | Bilboko Finantza Plaza Elkarte Sustatzailea, SA | Kidea |
| Arantza Zenarruzabeitia Beldarrain | Araba Garapen Agentzia, SA | Lehendakaria |
| | Vitoria Integrated Air Services, SA | Kidea |
| | CTV Gasteizko Garraio Zentroa, SA | Lehendakaria |
| | Gasteizko Aireportua Sustatzeko Bidea, SA | Kidea |
| | Arabako Teknologi Elkartegia, SA | Kidea |
| | Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, SA | Kidea |
| | Araba Logística, SA | Kidea |
| Emilio de Francisco Ugartondo jn. | Arabako Lanak, S.A. | Kidea |
| Administratzailea | Sozietatea | Karguak eta betebeharrak |

ARABAKO BIDEAK, SA
(Kide bakarreko sozietatea)

Partaidetza eta kargu xehetasunak, administratzaileen beste sozietate batzuetan

2009ko abenduaren 31a eta 2008

| Administratzailea | Sozietatea | Karguak eta betebeharrak |
|---|---|---|
| Alfredo de Miguel Agirre | Arabarri, SA | Lehendakaria |
| | Araba Uraren Agentzia, SA | Kidea |
| | Araba Garapen Agentzia, SA | Kidea |
| | Arabako Teknologi Elkartegia, SA | Kidea |
| | Landaburu Etxea, S.L. | Kidea |
| | Vital Kutxa | Kontseilaria |
| | Dinero Activo, S.A. | Batzorde Betearazleko kidea |
| | Hazibide, SA | Batzorde Betearazleko kidea |
| | Lasgarre, S.A. | Batzorde Betearazleko kidea |
| | Promoción Inmobiliaria Alavesa, S.A. | Batzorde Betearazleko kidea |
| | Estacionamientos Urbanos del Norte, S.A. | Batzorde Betearazleko kidea |
| | Araba Gertu, S.A. | Batzorde Betearazleko kidea |
| | Viuc Promociones, S.A. | Batzorde Betearazleko kidea |
| Mikel Mintegi Areitioaurtena | Araba Uraren Agentzia, SA | Lehendakaria |
| | Araba Garapen Agentzia, SA | Kidea |
| Juan Carlos Peral Santos | Fernando Buesa Arena, SA | Kidea |
| | Araba Garapen Agentzia, SA | Kidea |

Eranskin hau 2009ko ekitaldiko urteko kontu laburtuen memoriaren 16 (e) oharraren zati da, eta horrekin batera irakurri behar da.